

IKASGAIAREN IRAKASKUNTZA-GIDA

Titulazioa: ERIZAINZAKO GRADUA Irakasgaia: Gradu Amaierako Lana Kodea: 27982	Mota: Derrigorrezkoa Eskolen kronograma: 2. lauhilekoa Hizkuntza: Euskara/Gaztelania ECTS kredituak: 6 Maila: 4.a
Irakasgaiaren deskribapena: GRALaren irakasgaien ikasleek lan akademiko indibiduala egin behar dute, hau da, erizaintzaren inguruko literaturaren esku-hartze proiektu bat edo azterketa kritiko bat. Bertan Graduan zehar eskuratutako gaitasunak integratu eta garatu behar dira.	
Sartzeko baldintzak: Gradu Amaierako Lanerako matrikula unibertsitateak matrikula egiteko ezarriko duen epe orokorrean egingo da. Edozelan ere, Gradu Amaierako Lanaren matrikula egin ahal izateko, ikasleak gaindituta edo matrikulatuta izan beharko ditu ikasketa plana bukatzeko geratzen zaizkion irakasgai guztiak.	

IRAKASLEAK	Tel.	e-maila
Irakasgaiaren arduraduna: Elena De Lorenzo Urien	945 218086	elena_delorenzo@ehu.eus mariaelena.delorenzourien@osakidetza.eus
Euskarazko lerroko irakasleak: Susana Cariñanos Ayala	945 219003	susana_carinanos@ehu.eus susana.carinanosayala@osakidetza.eus

GAITASUN ESPEZIFIKOAK

- G1. Graduan zehar lortutako gaitasunak integratzea, ebidentzia zientifikoan oinarritutako profil profesionalarekin lotutako lan baten bidez.
- G2. Komunikatzeko gaitasuna erakustea, bai ahozkoa zein idatzizkoa, erizaintzako diziplinarekin lotutako zurruntasun akademikoarekin egindako lan batez bidez.

IKASITAKOAREN EMAITZAK

- IE1. Idatzizko memoria egiturari jarraituz eta zurruntasun akademikoarekin egin du. Bertan, Graduan hartutako gaitasunak integratu ditu
- IE2. Lanaren helburua mugatu du, erizaintzako diziplinaren esparruan oinarrituz.
- IE3. Marko kontzeptual bat eraiki du eta lanaren gaien egokitasuna justifikatu du.
- IE4. Terminologia egokiarekin deskribatu ditu erizaintzako diziplinaren kontzeptuak.

- IE5. Osasunaren Zientziekin lotutako informazio-iturriak eta -teknologiak erabili ditu, eta literatura zientifikoaren bilaketa sistematikoak egin ditu nazioko zein nazioarteko datu-baseetan.
- IE6. Literatura zientifikoa literaturaren analisi kritikoaren bidez hautatu du.
- IE7. Planteamendu metodologikoarekin eta literatura zientifikoarekin bat datozen emaitzak edo esku-hartzeak aurkeztu ditu.
- IE8. Jakintza eta Arrazoitze kritikoa erakutsi eta argumentuak eskaini ditu, bai idatzizko memorian, zein ahozko defentsan.
- IE9. Informazioa modu argian eta jariotasunez azaldu du, ikus-entzunezko baliabideez lagunduta, denbora kudeatuz eta hitzezko eta hitzik gabeko komunikazio egokia erabiliz.
- IE10. Autonomia erakutsi du GRALa egiterakoan.

EDUKIAK

I. UNITATEA GRADU AMAIERAKO LANAREN SARRERA: XEDEA ETA EDUKIA.

II. UNITATEA BIBLIOGRAFIA DATU BASE ZIENTIFIKOETAN BILATZEKO PROZESUA

- **1. Mintegia:** ikerketa artikulua baten irakurketa kritikoa

III. UNITATEA: LITERATURAREN HAUTAKETA KRITIKOA

- **2. Mintegia:** Ikerketa-artikulua baten irakurketa kritikoaren prozesua

IV. UNITATEA: EMAITZAK AZTERTZEKO ETA INTERPRETATZEKO ESTRATEGIAK / OSASUN HEZIKETA PROGRAMA BATEN METODOLOGÍA ETA PLANGINTZA

- **3. eta 4. Mintegiak:** emaitzen analisia eta interpretazioa edo/Hezkuntzako esku-hartze baten metodologia eta plangintza aztertzea

V. UNITATEA: KOMUNIKAZIO AKADEMIKOA ETA ERREFERENTZIAZKO TRESNAK

- **5. Mintegia:** Ahozko defentsa

UNITATEA	IRAKASLEA	KLASE MAGISTRALAK ORDUAK	MINTEGI ORDUAK
1	Susana Cariñanos Ayala	4,5	0
2	Susana Cariñanos Ayala	3	1
3	Susana Cariñanos Ayala	1,5	3
4	Susana Cariñanos Ayala/ Iker Apraiz Sanchez	3	6
5	Susana Cariñanos Ayala	1	2
TOTAL		13	12

*Mintegietako orduak video eta topaketen ilustraldia biltzen dute

Gratu Amaierako Lana indibiduala izango da, modu autonomoan garatutakoa. Edonola, lan honekin laguntzeko, ikasleek ondoko baliabideak eskuragarri dituzte:

- **Klase magistralak:** irakasleak, ikus-entzunezko laguntzarekin, GRALaren eraikuntza eta ebaluazio prozesuari buruzko ezagutzak aurkeztuko ditu. Klase horietan ikasleen parte hartzea erraztuko da banakako elaborazio prozesuan argitzen eta aurrera egiten laguntzen duten irakaskuntza jarduera praktikoen bidez.
- **Mintegiak:** ezagutza sakontzea helburu dutenak, GRALa banaka egiteko beharrezkoak diren prozesuen aplikazio praktikoaren bidez
- **Tutoretzak:** Ikasle bakoitzak ordubeteko 4 tutoretza izango ditu, eta horietan zuzendariak GRALaren garapen fase desberdinetan orientatzaile papera izango du.

Prestakuntza derrigorrezkoa da GRAL garatzeko beharrezko tresnak landuko baitira. Prestakuntza saio batera joatea eragozten duten egoera bereziak gaiaren arduradunarekin tratatu beharko liriateke.

BERTARATZEKO LANA (22 ORDU)		
Klase magistralak	Mintegiak	Tutoretzak
13	5	4

EZ-BERTARATZEKO LANA (123 ORDU)		GUZTIRA	
Bakarkako lana		ECTS	6
128		HORAS	150

EBALUAZIO-SISTEMAK: OHIKO ETA EZOHIKO DEIALDIAK

Ebaluazioa amaieran egingo da. Ikasgai honetan ezarritako gaitasunak eta ikasitakoaren-emaizak norbanakoaren lanaren bidez (%80) eta ahozko defentsaren bidez (%20) ebaluatuko dira, erantsitako taulan aurkeztu den bezala.

	GAITASUNAK/EMAITZAK	EBALUAZIO JARDUERAK	KALIFIKAZIOK O %-A	EBALUAZIOAREN TENPORALIZAZIOA	EBALUATZAIL EA
% 80 Banakako lana	G1, G2	Banakako lan akademikoa: • Literatura berrikustea • Hezkuntza-plan bat diseinatzea	50	Defentsaren aurretik	Zuzendaria
	IE1, IE 2				
	G2,	Idatzizko komunikazioa	10	Defentsaren aurretik	Zuzendaria
	IE 1 IE2				
	G1,	Lan akademiko indibiduala egiteko prozesua	20	Elaborazio eta tutoretza prozesuan zehar	Zuzendaria
	IE1-IE10,				
%20 Defentsa	G2	Defentsa (ahozko komunikazioa)	20	Defentsan	Epaimahaia
	IE8, IE9				

Ikasgaia gainditzeko, gaitasun guztiak 5 batekin gainditu behar dira. 2. gaitasunari dagokionez, ahozko zein idatzizko gaitasuna 5 batekin gainditu behar dira. Era berean, banakako lan akademikoaren metodologia gutxienezko eskakizuna izango da, eta 5 batekin gainditu beharko da.

Zentro honetan GRALa defendatzeko bi epealdi daude, maiatzean eta uztailean. Irailean ikasketa amaierako deialdia eskatzen duten ikasleentzat, beste defentsa-epealdi bat gaituko da otsailean. Otsaileko defentsak, kasu horretan, maiatzeko defentsa ordezkatuko du.

Defentsa egiteko, beharrezkoa da dagokion eskaera egitea eta Zentroaren Araudian zein data gakoan dokumentuan jasotako prozedurari jarraitzea.

Ebaluazio-prozesuak honako hauek jarraituko ditu: Euskal Herriko Unibertsitatean Gradu Amaierako Lana egiteari eta defendatzeari buruzko arautegia, 2023ko abenduaren 14ko Gobernu Kontseiluan onartua (EHAA, 2024ko apirilaren 10ekoa) eta Gradu Amaierako Lanari buruzko Zentroaren Araudia. GRALaren prozesuak GRALa egiteko gideak jasotako irizpideak bete beharko ditu, baita argitaratutako data nagusien dokumentuan argitaratutako kronologia ere.

INFORMAZIO-ITURRIAK

Oinarrizko bibliografia

- * Aveyard H. Doing a Literature Review in Health and Social Care: A Practical Guide. 5th ed. McGraw-Hill Education; 2023.(electronic book)
- * Coughlan M, Cronin P. Doing a literature review in nursing, health and social care. Londres: Sage; 2017.
- * Faus F, Santainés E. Búsquedas bibliográficas en bases de datos: primeros pasos en investigación en ciencias de la salud. Bartzelona: Elsevier España, S.L.; 2013.
- * Mcsherry R, Bettany-Saltikov J. How to do a systematic literature review in nursing: a step-by-step guide. Londres: McGraw-Hill Education; 2016.

- * Siu C, Comerasamy H. Doing A Research Project In Nursing And Midwifery. A Basic Guide to Research Using The Literature Review Methodology. Londres: Sage; 2013.
- * Walliman N. Your Undergraduate Dissertation: The Essential Guide for Success. Londres: Sage; 2014.
- * Williamson GR, Whittaker A. Succeeding in literature reviews and research project plans for nursing students. Londres: Learning Matters; 2017.

Sakontzeko bibliografia

- * Grove SK, Gray JR, Faan PR. Investigación en enfermería: Desarrollo de la práctica enfermera basada en la evidencia. 7. argit. Bartzelona: Elsevier; 2019.
- * Polit DF, Beck CT. Investigación en enfermería: Fundamentos para el uso de la evidencia en la práctica de la enfermería. 9. argit. Bartzelona; Wolters Kluver; 2018
- * Hernández Sampieri R, Fernández Collado C, Baptista Lucio P. Metodología de la investigación. 6. argit. Mexiko: Editorial Mc Graw Hill; 2014.
- * Icart MT, Fuentelsaz C, Pulpón AM. Elaboración y presentación de un proyecto de investigación y una tesina. Bartzelona: Universitat de Barcelona; 2006.
- * Machi LA, McEvoy BT. The Literature Review: Six Steps to Success. Southern Oaks: Corwin Press; 2009.
- * Polit DF, Beck CT. Essentials of Nursing Research. 9. argit. Filadelfia: Wolters Kluwers Health; 2018.
- * Smith K, Todd M, Waldman J. Doing Your Undergraduate Social Science Dissertation. New York: Routledge; 2009.

Helbide elektroniko interesgarriak

- * Instituto para la práctica de Cuidados de Salud basados en la Evidencia
http://www.isciii.es/htdocs/redes/investen/Best_Practice.htm
- * Ebidentzian oinarritutako Osasun Zainketen praktikarako Institutua:
http://www.isciii.es/htdocs/redes/investen/Best_Practice.htm
- * <https://www.fisterra.com/formacion/metodologia-investigacion/estilo-vancouver/>
- * Best Practice Guidelines translated:
- * Registered Nurses' Association of Ontario. <http://rno.ca/bpg/language>
- * Catálogo de Guías de Práctica Clínica en el Sistema Nacional de Salud (SNS)
https://portal.guiasalud.es/gpc/?_sfm_wpcf-estado=1
- * Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad. Excelencia Clínica: Mejorar la Atención de los Pacientes. <https://www.sanidad.gob.es/areas/calidadAsistencial/excelenciaClinica/home.htm>
- * Osasun Sistema Nazionalako Praktika Klinikoko Giden Liburutegia:
<http://portal.guiasalud.es/web/guest/catalogo-gpc>
- * Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioa. Bikaintasun Klinikoa: Pazienteen Arreta hobetzea:
<https://www.msssi.gob.es/organizacion/sns/planCalidadSNS/ec04.htm>
- * Joanna Briggs Institute. Clinical On-line Network of Evidence for Care & Therapeutics.
<https://connectplus.jbi.global/>
- * NHS Evidence: <https://www.nice.org.uk/about/what-we-do/evidence-and-best-practice-resources/evidence-search/evidence-search-service-closure-information>

- * PREEVID: <https://www.murciasalud.es/preevid.php>
- * GAINDEGIA: Euskal Herriko gizarte- eta ekonomia-garapenerako behatokia: <http://www.gaindegia.eus>
- * EUSTAT: www.eustat.es
- * EIN: <http://www.ine.es>
- * EUROSTAT: <http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/eurostat/home>
- * Osasunaren Mundu Erakundea: <http://www.who.int/es>
- * Centers for Disease Control and Prevention: <http://www.cdc.gov/>

Baliabide bibliografikoen datu-baseak eta argitalpenen web libreak:

- * Medline datu-basea: <http://www.ncbi.nlm.nih.gov/pubmed>
- * NURE zientzia-aldizkaria: <http://www.nureinvestigacion.es/>
- * Cochrane Plus liburutegia: <http://www.update-software.com/Clibplus/ClibPlus.asp>

OHARRAK:

Irakasgaiaren hasieran matrikulatutako ikasleek honako hauek izango dituzte eskuragarri eGela plataformaren bidez:

- Informazioari buruzko dokumentazioa:
 - Irakasgaiaren irakaskuntza-gida
 - GRALa oro har egiteko gida
 - Lan mota bakoitzerako gida
 - EHUren eta zentroaren beraren araudiak GRALari buruz
 - GRALa egiteko prozesuen kronograma eta data nagusiak
 - GAUR aplikazioan proposamena, defentsa-eskaera eta GRALen gordailuan inskribatzeko jarraibideak
 - Ikasleak taldetan banatzea
- Irakasteko materiala: irakasleak eskola edo mintegi bakoitzean egindako edukiak eta power pointak.
- GRALa egiteko prozesuaren zereginak.
 - Gaia hautatzeko orduan koordinatzeko wikia
 - Tutoretza bakoitzerako egindako lanaren entregarako eta haren erregistroetarako sarbidea
 - Behin betiko dokumentua entregatzeko sarbidea

Material eta informazio hori guztia lagungarria izango da gaitasunak lortzeko eta ebaluazio-jarduerak gainditzeko.